EBAZPENA, 2022ko uztailaren 27koa, Plangintza eta Antolaketako eta Ikastetxe eta Plangintzaren Zuzendaritzako zuzendariena, 2022-2023 ikasturterako, Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxe publikoetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako maila eta etapa desberdinetan ikastaldeak eratzeko irizpideak zehazten dituena.

1.- Xedea eta aplikazio-eremua.

Ebazpen honen helburua 2022-2023 ikasturterako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako maila eta etapa desberdinetan ikastaldeak eratzeko irizpideak zehaztea da.

Ebazpen hau aplikatuko da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Batxilergoa edo Lanbide Heziketako Heziketa Zikloak ematen duten Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxeetan.

2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako irizpideak.

2.1.- Taldeak osatzeko oinarria gela bakoitzeko 25 ikaslekoa izango da.

2.2.- Talde kopurua kalkulatzeko, lehenik, ikasle kopuru osotik curriculum-aniztasunaren bidezko ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programako taldeei dagozkien ikasleak kenduko dira. Neurri horren ondorioz curriculum-aniztasunaren bidezko ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programako ikasleak gainerakoekin elkartzen diren geletan 25 ikasletik gorako taldeak osatzen badira, ikastetxeei beharrezko ordu-kreditu osagarria emango zaie gela horietako taldeak bitan banatzeko.

2.3.- Aukera askeko edo hautazko jakintzagai bakoitzean eratu ahal izango diren taldeen kopurua zehazteko, jakintzagai horretan matrikulatuta dauden ikasleen benetako kopurua kontuan hartuko da, talde bakoitza osatuz gehienez 25 ikaslerekin. Bestalde, DBHko maila bakoitzean dagoen aukera askeko eta hautazko jakintzagaien talde kopuru guztira ezin da izan ondorengo formulak agintzen duena baino handiagoa:

Baimendutako gehieneko talde kopurua =
(Ikasle kopurua / 25) * (Aukera askeko eta hautazko jakintzagai kopurua * 1,5)

Aurreko formulak emandako emaitza hurrengo zenbaki osoraino jota biribilduko da, eta ezin izango da aukera askeko eta hautazko jakintzagai kopurua baino txikiagoa izan.

2.4.- Ikastetxeari astean hiru ordu gehiago emango zaizkio Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumaren irakaskuntzarako, jakintza-eremuak osatu diren ikasturte eta hizkuntza-ereduko taldeetako bakoitzeko (jakintzagai multzoaren emaitza gisa). Ikastetxeak ordu gehigarri horiek erabili beharko ditu plangintzarako eta koordinaziorako, eta jakintzagai horietan irakaskuntza partekatua egiteko. Ordu gehigarri horiek bateraezinak izango dira banaketen ondorioz sortutako kredituarekin.

2.5.- Etapa honetako lau mailetako bakoitzean, ikasle kopuruaren eta maila eta hizkuntza-eredu bateko talde kopuruaren arteko zatiketaren emaitza 20 edo handiagoa bada, ikastetxeari astean hiru ordu gehiago emango zaizkio maila eta hizkuntza-eredu horietako taldeetako bakoitzeko. Ikastetxeak ikasleari zuzeneko arreta egiteko erabiliko ditu ordu horiek: hezkuntza-errefortzuko eskolak emateko edo banatutako taldeetan eskolak emateko.

Ikastetxe bakoitzak, bere autonomia erabiliz, askatasunez erabakiko du nola banatu arrazoi horregatik dagozkion orduak maila eta jakintzagaien artean. Banaketa horretan ez du eragingo zein mailari esker lortu diren ordu horiek, taldeko 20 ikasle edo gehiagoko kopurua izateagatik.

2.6.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edozein mailako lehenengo atzerriko hizkuntza bi edo gehiago emateko edo jakintzagai bateko bi mota emateko, hizkuntza edo mota bakoitzeko 15 ikasle beharko dira gutxienez. Hizkuntza-eredu zehatz batean talde bakarra dagoenean eta, hizkuntza dela eta, ezinezko denean bi hizkuntza-ereduetako ikasleak elkartzea, eskatzen den gutxiena 10 ikasle izango da eredu horretan.

2.7.- Maila eta hizkuntza bakoitzeko Erlijio taldeen kopurua ezarriko da, maila eta hizkuntza horretan matrikulatutako ikasleak kontuan hartuta, eta Ebazpen honen 2.1. apartatuan ezarritako ratioa aplikatuta. Irizpide bera aplikatuko da maila eta hizkuntza bakoitzean Balio Etikoen talde kopurua zehazteko orduan.

3.- Batxilergorako irizpideak.

3.1.- Taldeak osatzeko oinarria gela bakoitzeko 30 ikaslekoa izango da. Jakintzagai bakoitzean eratu ahal izango diren taldeen kopurua zehazteko, jakintzagai horretan matrikulatuta dauden ikasleen benetako kopurua kontuan hartuko da, talde bakoitza osatuz gehienez 30 ikaslerekin. Modalitate desberdineko ikasleak batuko dira guztientzako jakintzagaietan, aipatutako ratioa gainditu gabe. Batxilergoko gaueko taldeetan eta talde erdipresentzialetan ikasleak banakako jakintzagaietan matrikulatzen direla eta ikasturtea hasi ostean gertatzen diren bajak kontuan izanik, gehien jota % 60ko igoera baimenduko da ikasle hauen taldeko kopuruan.

3.2. Modalitate berri bateko edo ikastetxean lehendik dagoen modalitate bateko ikasleekin talde bat osatu ahal izateko, gutxienez hizkuntza-eredu bereko 17 ikasle beharko dira, ezohiko kasuetan izan ezik; horrelakoetan, Ikastetxe eta Plangintzaren Zuzendariak berariaz eman beharko du baimena horretarako.

3.3.- Komunak ez diren jakintzagai bakoitzean eratu ahal izango diren taldeen kopurua zehazteko, jakintzagai horretan matrikulatuta dauden ikasleen benetako kopurua kontuan hartuko da, talde bakoitza osatuz gehienez 30 ikaslerekin. Bestalde, Batxilergoko maila bakoitzean komunak ez diren jakintzagaien talde kopuru guztia ezin da izan ondorengo formulak agintzen duena baino handiagoa:

Baimendutako gehieneko talde kopurua = (Ikasle kopurua / 30) * 5 * 1,5

Aurreko formulak emandako emaitza hurrengo zenbaki osoraino jota biribilduko da, eta ezin izango da 5 baino txikiagoa izan modalitate eta hezkuntza-eredu bakoitzeko.

3.4.- Etapa honetako bi mailetako bakoitzean, ikasle kopuruaren eta maila eta hizkuntza-eredu bateko talde kopuruaren arteko zatiketaren emaitza 20 edo handiagoa bada, ikastetxeari astean bi ordu gehiago emango zaizkio maila eta hizkuntza-eredu horietako taldeetako bakoitzeko. Ikastetxeak ikasleari zuzeneko arreta egiteko erabiliko ditu ordu horiek: hezkuntza-errefortzuko eskolak emateko edo banatutako taldeetan eskolak emateko.

Ikastetxe bakoitzak, bere autonomia erabiliz, askatasunez erabakiko du nola banatu arrazoi horregatik dagozkion orduak maila eta jakintzagaien artean. Banaketa horretan ez du eragingo zein mailari esker lortu diren ordu horiek, taldeko 20 ikasle edo gehiagoko kopurua izateagatik.

3.5.- Batxilergoko edozein kurtsoetako lehenengo atzerriko hizkuntza bi edo gehiago emateko, hizkuntza bakoitzeko 15 ikasle beharko dira gutxienez. Hizkuntza-eredu zehatz batean talde bakarra dagoenean eta, hizkuntza dela eta, ezinezko denean bi hizkuntza-ereduetako ikasleak elkartzea, eskatzen den gutxiena 10 ikasle izango da eredu horretan.

4.- Oinarrizko Lanbide Heziketarako irizpideak.

4.1.- Orokorrean, ikasgela bakoitzean 15 ikasle egongo dira, eta, salbuespenezko kasuetan, 20 arte baimenduko dira.

4.2.- Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak planifikatu eta adostutako zikloak oinarri hartuta, eta aurrematrikularen datuak jasota, prestakuntza-eskaintza eta hizkuntza-ereduena itxiko dira, taldea osatzeko eskatutako gutxieneko ikasle kopurua (12) kontuan hartuta.

5.- Espezializazio Kurtsoak, Erdi Mailako eta Goi Mailako Heziketa Zikloetarako irizpideak.

5.1.- Orokorrean, Erdi Mailako eta Goi Mailako Heziketa Zikloetako ikasgela bakoitzean gutxienez 20 ikasle eta gehienez 25 egongo dira.

5.2.- Orokorrean, Espezializazio Kurtsoetan ikasgela bakoitzean gehienez 20 ikasle egongo dira.

5.3.- Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzarekin planifikatzen eta adosten diren “B+” ereduko zikloek ordu-kreditu jakin bat izango dute euskara behar bezala ez dakiten ikasleei gaztelaniaz emateko euskaraz bakarrik ematen diren ikasgaiak.

5.4.- Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak planifikatu eta adostutako zikloak oinarri hartuta, eta aurrematrikularen datuak jasota, prestakuntza-eskaintza eta hizkuntza-ereduena itxiko dira, kontuan izanik eskatutako gutxieneko ikasle kopurua 12 dela A, B eta D hizkuntza-ereduetan, eta 14 B+ ereduan. Kontuan izango dira hurrengo irizpideak:

1. Hizkuntza-eredu bat baino planifikatzen ez bada, eredu hori ezarriko da, betiere eskatutako gutxieneko ikasle kopurua badu.

2. A, B eta D eskaini badira, egoera hauek gerta daitezke:

- B eta D ereduek aurrematrikulan taldea osatzeko eskatzen den gutxieneko ikasle kopurua ez dutenean bakarrik ezarriko da A eredua.

- Eskainitako eredu batek baino gehiagok baldin badute taldea osatzeko eskatzen den gutxieneko ikasle kopurua, honako lehentasun-ordena hau erabiliko da zer eredu ezarriko den erabakitzeko:

1.- D
2.- B
3.- A

- B edo D ereduetatik batek 15 ikasle edo gehiago baldin baditu, eredu horixe ezarriko da. Bi ereduek baldin badituzte 15 ikasle edo gehiago, ezarritako lehentasuna errespetatuko da.

- Aurreko ikasturtean D eredua ezarri bazen, eredu hori ezarriko da lehentasunez, betiere taldea osatzeko gutxieneko ikasle kopurua badago.

3. A, B+ eta D eskaini badira (Euskalduntze Plana), kontuan izan behar da "B+" ereduan taldea eratzeko gutxieneko kopurua 14 ikaslekoa dela: 6 eredu batean ("A" edo "D") eta 8 beste batean ("D" edo "A").

- B eta D ereduek aurrematrikulan taldea osatzeko eskatzen den gutxieneko ikasle kopurua ez dutenean bakarrik ezarriko da A eredua.

- D eredua ezarriko da beti 20 ikaslek edo gehiagok eredu horretan aurreinskripzioa egiten badute.

- "B+" eredua ezarriko da 14 ikaslek edo gehiagok egiten badute aurreinskripzioa, 6k eredu batean ("A" edo "D") eta 8k beste eredu batean ("D" edo "A").

6.- Zereginen Ikaskuntzako Geletarako irizpideak.

Zereginen Ikaskuntzako gela bakoitzean gutxienez 3 ikasle eta gehienez 10 egongo dira. Ezingo da aurreko ikasturtean martxan zegoen Zereginen Ikaskuntzako gela bat mantendu ikasleen kopurua 3 baino txikiagoa bada. Lehenengo aldiz ezartzen diren Zereginen Ikaskuntzako geletan, gutxienez 4 ikasle izan beharko dira.

7.- Salbuespenak.

Salbuespenak Ikastetxe eta Plangintzaren Zuzendariak ala Plangintza eta Antolaketako Zuzendariak onartu beharko ditu, dagokionaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 27a

Eugenio Jimenez Ibañez Nicolás Sagarzazu Alzua

IKASTETXE ETA PLANGINTZAREN ZUZENDARIA

PLANGINTZA ETA ANTOLAKETAKO ZUZENDARIA